

4. KONPROMISOA LEGEGINTZA-/ARAUGINTZA-/ERREGELAMENDUGINTZA-EKIMENAK LANTZEKO PROPOSAMENAK ETA ATXIKIMENDUAK BILTZEKO TRESNA

Gailu bat garatu nahi da legegintzako/araugintzako/erregelamendugintzako herri-ekimenak eta atxikipenak biltzea pizteko, berme guztiak dituen aurrera egiteko ekimen eta atxikipenok tramitatzen direnean.

HASIERA- ETA AMAIERA-DATA: 2021eko urria - 2024ko abendua

NORK HARTUKO DU PARTE GARAPENEAN?

ZER ADMINISTRAZIO DA BURU?

Erakundearen izena	Saila edo zuzendaritza	Harremanetarako pertsonaren izena	Kargua	Helbide elektronikoa	Zer rol betetzen du garapenean?
Eusko Jaurlaritza	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	Javier Bikandi Irazabal	Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza.	j-bikandi@euskadi.eus	Exekutatzeko eta ezartzeko arduraduna

GIZARTE ZIBILEKO ZER ERAKUNDETAN DA ARDURAKIDEA (hala badagokio)?

Erakundearen izena	Harremanetarako pertsonaren izena	Kargua	Helbide elektronikoa	Zer rol betetzen du garapenean?
Arantza Gaur Fundazioa-Arantzazulab	Ione Ardaiz	Gizarte Berrikuntzako arduraduna	iardaiz@arantzazulab.eus	Baterako diseinua Kontrastea eta jarraipena

INPLIKATUTA DAUDEN BESTE ERAGILE BATZUK

1	<i>Bilboko Udala</i>	<i>Miren Gotzone Zaldunbide</i>	<i>Herritarren Arretako eta Partaidetzako Zuzendaria</i>	gzaldunbide@bilbao.eus	<i>Kolidergoa egitea eta ezartzea</i>
2	<i>Asociación Belaunaldi Galdua</i>	<i>Maria Concepción García Martos</i>	<i>Presidentea</i>	belaunaldigaldua@gmail.com	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
3	<i>Herritartasuna</i>	<i>Jone Gardoki Arriotua</i>	<i>Herritarra</i>	agroturismoantekena@yahoo.es	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
4	<i>Laudioko Udala</i>	<i>Maite Cortazar Agüera</i>	<i>Herritarrekiko Haremaneko Zinegotzia</i>	m.cortazar@laudiokoudala.net	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>

5	Kanala Auzo Elkartea (Bilboko San Ignacio Auzokoa)	Ismael Redondo Rojo	Presidentea	infinitemenos2@gmail.com	Konpromiso-taldeko kidea
6	Eupraxia Systems SL	Óscar Blanco Hortet	Marketineko eta I+G proiektuetako arduraduna	oblanco@eupraxia.es	Konpromiso-taldeko kidea
7	Herritartasuna	Ignacio Romera Sobrino	Herritarra	iromera@innokey.es	Konpromiso-taldeko kidea
8	Ibatuz	Antxon Gallego Solatxe	Herritarra	agallego@ibatuz.com	Konpromiso-taldeko kidea
9	Eusko Ikaskuntza-Sociedad de estudios vascos	Beatriz Akizu Aizpiri	Prospektiba, estrategia eta proiektu berrien zuzendaria	beatriz.akizu@eusko-ikaskuntza.eus	Konpromiso-taldeko kidea
10	Gasteizko Udala	Juan Carlos Alonso	Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko burua	participacion-partehartzea@vitoria-gasteiz.org	Konpromiso-taldeko kidea
11	Elhuyar Fundazioa	Amaia Zarrabeitia Salterain	Partaidetza eta Eraldaketa Arlo-arduraduna	a.zarrabeitia@elhuyar.eus	Konpromiso-taldeko kidea
12	Bilboko Emakumeraren Kontseilua	Maria Aranzazu Otaolea Velado	Bilboko Emakumeraren Kontseiluaren kidea	maria.aranzazu.otaolea@bizkaia.eus	Konpromiso-taldeko kidea
13	Eusko Legebiltzarra	Zelai Nikolas Ezkurdia	Letradua	nikolas.z@legebiltzarra.eus	Konpromiso-taldeko kidea
14	Laudioko Udala	Ander Larrinaga	Udal strategiako zinegotzia	a.larrinaga@laudio.eus	Konpromiso-taldeko kidea

15	<i>Emun aholkulariak</i>	<i>Mikeldi Zeberio</i>	<i>Aholkularia</i>	mikeldi@emun.eus	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
16	<i>Kultiba</i>	<i>Aitzol Batiz Ayarza</i>	<i>Aholkularia</i>	abatiz@kultiba.net	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
17	<i>Barakaldoko Udala</i>	<i>Carol Zabaco Pérez</i>	<i>IKTen eta Gardentasunaren koordinatzailea</i>	czabaco@barakaldo.eus	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
18	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Leyre Vitorica Donezar</i>	<i>Gardentasunaren eta Gobernu Onaren zuzendaria</i>	leyre.vitorica@bizkaia.eus	<i>Konpromiso-taldeko kidea</i>
19	<i>EJIE- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea</i>	<i>Alex Lara Garachana</i>	<i>Proiektuen arduraduna</i>	a-lara@ejie.eus	<i>Proiektuaren arduradun teknologikoa</i>
20	<i>Eusko Jaurlaritza</i>	<i>Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino</i>	<i>Proiektuen arduraduna</i>	k-uriarte@euskadi.eus	<i>Proiektuaren arduraduna</i>

KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA	
ZERGATIK	
<p>ZER ERRONKARI ERANTZUTEN DIO</p>	<p>Legegintza, araugintza edo erregelamendugintzako herri-ekimenak sustatzeko prozesuak zehatz-mehatz daude idatzita prozesu bakoitzari dagokion araudian:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Europakoa (herri-ekimena -tratatuak aplikatzeko egintza juridikoari buruzko proposamena-) -Estatukoa (legegintzako herri-ekimena - lege-proposamenak) - Autonomikoa (legegintzako herri-ekimena, EAEkoa - lege-proposamenak) - Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako forala (araugintzako herri-ekimena - batzar nagusiek foru-arauak lantzeko proposamenak) - Arabako eta Gipuzkoako forala (erregelamendugintzako herri-ekimena, foru-erregelamendu proposamenak egiteko) - Gasteizkoa eta Donostiakoa, tokikoa (udal erregelamenduak egiteko proiektuak) <p>Hala ere, ea ez dago batere jarduerarik; izan ere, herritar gehienek ez dakite zelan bideratu, eta zaila izaten da modu ziurtatu eta seguruan lortzea prozedura bakoitzak behar izaten dituen atxikipenak. Aurkezten diren ekimen asko eta asko bertan behera geratzen dira, amaitu egiten baita atxikipenak jasotzeko epea; aurrera egiten dutenak, berriz, ez datoz herritar-talde anonimoetatik. Ondorioz, lausoturik geratzen da, neurri batean, herri-ekimenen helburua.</p> <p>Era berean, atxikipenak baliozkoak direla ziurtatzeko lana konplexua da, eta, hura errazteko, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna behar da.</p>
<p>ABIAPUNTUKO EGOERA</p>	<p>Horren guztiaren ondorioz, ia ez dago herri-ekimenik legerik, araurik edo erregelamendurik lantzeko, edo, askotan, proposamenak ez dira onartzen, ez dutelako lortzen dagokien arauan ezarritako atxikipen-kopurua.</p>
ZERTARAKO	
<p>ZER LORTU NAHI DUGU? <i>emaitzak eta helburu orokorrak</i></p>	<p>Helburu orokorrak erakundeek administrazio publikoen eta herritarren artean gobernatzeko modu berriak aztertzeke duten erronka orokorrari erantzuten dio. Eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da ikuspegi eta tresna berriak sartzea, agenda publikoaren garapenean herritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko. Testuinguru horretan, teknologia berriek berebiziko garrantzia izan dezakete erakundeek modu irekiagoan, kolaboratiboagoan eta eraginkorragoan lan egiteko duten gaitasuna indartzeko orduan, erronka publikoak ebazteko orduan erabaki hobek har ditzaten. Eta, ildo horretan, aurrerapen teknologikoek esperientzia hobea eskaintzeaz gain, gobernantza publikoa eraldatzeko aukera ematen diete herritarrei administrazioekin elkarreraginean aritzeko orduan.</p>

Esparru horretan, proiektu honen helburua esperientzia digital bat garatzea da, herritarrak erdigunean jarrita; Euskadiko herritarren aniztasunak eskuragarri izan dezan diseinatuko da, eta materialak hizkuntza argia erabiliz sortuko dira.

Esperientzia digitalean honako hauek zehaztuko dira:

- Tresna erabili aurreko fasea. Bertan, herritarrek eskubide horren berri nola izango duten, jarraitu beharreko prozesuaren berri nola emango den eta, zehazki, edozein herritarrek lege-, arau- edo erregelamendu-ekimen herrikoiei bat sustatzeko prozesua nola has dezakeen diseinatuko da.
- Tresna digitala erabiltzeko fasea. Hori izango da esperientzia digitala definitzeko fase nagusia, hurrengo paragrafoetan zehazten den bezala.
- Tresna digitala erabili ondorengo fasea. Fase honetan zehaztuko da nola jakinarazten zaien ekintzen emaitza prozesua sustatzen duten eta osatzen duten pertsonen, eta nola partekatzen duten herritarrek informazioa, horrelako prozesuei buruzko prestakuntza eta kontzientziak emateko.

Esperientzia honen funtsezko elementuetako bat tresna digital bat izango da, irisgarria eta nabigatzeko erraza, Euskadirako edozein lege-, arau- edo erregelamendu-ekimen sustatzen duten herritarren taldeek aski ezaguna eta erabiltzeko modukoa, honako hauek ahalbidetzen dituenak:

- Prozesuari publikitatea eta gardentasuna ematea (webgunean argitara ematea prozesuari buruzko dokumentazioa: zein den batzorde sustatzailearen osatura; zein den erregulazio-proposamena egiten hasteko data; zioen azalpen arrazoitua; zein den testu artikulatua; Izapidetzeko eskumena duen administrazioa; zein diren laguntza- edo finantzaketa-iturriak, halakorik baldin badago; zer ebazpen eman daitekeen haren tramitazioa onartzeko edo ez onartzeko; zer errekurtso eta ebazpen dagoen; nola komunikatu atxikimenduak jasotzen hasteko; zenbat atxikimendu jaso diren; zein diren atxikimenduak ziurtatzeko ardura duten fede-emaileak; baliozko atxikimenduen ziurtagiria; tramitazioa abiarazi izanaren jakinarazpena, Legebiltzarreko edo batzar nagusietarako estekaren bidez). Tresnak prestakuntza- eta informazio-atal bat izan behar du (nork, zertarako...), hura erabiltzeko gida gisa eta erabilera sustatzeko.
- Atxikipenak elektronikoki eta modu seguruan biltzea, egiaztatze moduan, arbuiatu ezin izateko moduan eta ikuskatzeko moduan (beste ezertarako erabili ezin direlarik, eta ezin direlarik ez suntsitu ez aldatu ez inon zabaldu baimenik gabe). Eten digitalak eragiten dien kolektiboetatik datozen atxikimenduak biltzeko modu seguruak lortzeko moduak aztertzea, edo sinadura digitalaren ziurtagiria lortzea ezinezkoa delako (atzerriko pasaporteak duten pertsonak).
- Atxikimenduak egiaztatzea eta ziurtatzea, eskura ditugun elkarreragingarritasun-sistemak erabiliz (NAN, udal-errolda...), arau bakoitzaren eskakizunen arabera.

	<p>Aldi berean, herri-ekimena arautzen duten arauak aldatzeko beharrak identifikatzeko ahalegina egingo da. Arau horiek zaharkituta geratu dira administrazio elektronikoa ezarri aurretik indarrean jarri zirelako (administrazio-prozedura elektronikoa, elkarreragingarritasun-arau teknikoak, sinadura elektronikoa, datuak egiaztatzeako sistemak, erregistro elektronikoa...).</p> <p>Tresna Eusko Jaurlaritzako plataforman egongo da eskuragarri EAeko edozein administrazioarentzat; euskarri tekniko baten laguntzaz, software aske gisa eskainiko da, nahi duten herritar sustatzaile guztiek erraz instala dezaten kanpoan.</p> <p>Irismen-muga: ez dakar legegintza/araugintza edo erregelamendugintzako bizi-zikloa erabat digitalizatzea, horrek ekarriko lukeelako eragile guztiak integratzea (batzorde sustatzailea / Legebiltzarreko edo lurralde historikoetako batzar nagusietako mahaia / hauteskunde-batzorde zentrala edo probintziala) eta erregistroan jasotzea dokumentazioa, alderdien arteko jakinarazpenak, ebazpen-emateak...</p> <p>Herri-ekimena sustatzen duen batzordeak erabili ahal du Eusko Jaurlaritzako plataforman dagoen tresna edo berak daukana, atxikipen seguruak jasotzeko eta atxikipenok egiaztatzeko. Horrek konpontzen ditu sustatze- eta pizte-alderdi guztiak. Izan ere, erronka hori dugu.</p> <p>EAeko administrazio guztiek eduki dezakete tresna, erabiltzeko.</p>
<p>BEHIN EZARRI OSTEAN, ZER ALDATUKO DA? <i>espero diren emaitzek nola eta zer neurritan lagunduko dute erronkari erantzuten?</i></p>	<p>Esperientzia digital eskuragarria eta Euskadin herritar guztiek jarraitu beharreko urratsak argi dituen.</p> <p>EAeko administrazioek (Legebiltzarrak, batzar nagusiek, gobernu autonomiko, foral eta tokikoek) beren web-orrietan izango dute tresnak, erabil dadin.</p> <p>Izango dira batzorde sustatzaile batzuk tresna hori izango dutenak herritarren eta eragile zibikoen artean zabaltzeko. Epe ertain batean, jarduera sortuko da, eta proposamenak tramitatuko dira.</p>
<p>ZERTAN EGIN NAHI DUGU EKARPENA?</p>	
<p>ZER EKARPEN EGITEN DIO GOBERNU IREKIAREN IKUSPEGIARI?</p>	<p>Ekimen honek herritarren ahalduak indarra aprobetxatzen du, lege- eta exekuzio-erakundeak eraginkorragoak izan daitezen eta hobeto erantzun diezaieten herritarren eskariei, lankidetzako gobernantza-eredu berriekin esperimendatzeko aukeraz gain.</p> <p>Ekimen honek herritar antolatuen eta antolatugabeen lankidetzaz sustatzen du, gure herrialdeetan areagotu dadin gizakien aberastasuna, ongizatea eta duintasuna, eta mundua gero eta konektatuago egon dadin.</p>

	<p>Ekimen honek erraztu egiten du estatu- eta autonomia-gobernuetako informazio-sistemen elkarrengarritasuna; baita foru-gobernuetako eta toki-gobernuetakoa ere.</p> <p>Ekimen honi esker, errazago entzungo zaie herritarrei, eta errazago sartu ahal izango da teknologietara, modu ekitatiboan eta merke.</p> <p>Ekimen honek tartean sartzen ditu hala gizarte zibila nola administrazio publikoak, legegintzako ikuspegi berritzaileak identifikatzeko.</p> <p>Tresna bakarra da, EAeko administrazio guztiek erabiltzeko modukoa; oinarritzat hartzen ditu hala hizkera errazaren printzipioa nola erabilgarritasun- eta irisgarritasun-printzipioak.</p> <p>Neurtzeko moduko konpromisoa da, inpaktua duena. Gizarte zibilarekin batera diseinatuko da (gizarte zibil antolatuarekin eta antolatugabearekin).</p> <p>Lankidetzeta-gobernantza indartzeko aukera ematen duen esperientzia digitala da, herritarrak erakunde publikoetara eta politika publikoen definiziora hurbilduz.</p>
<p>ZER POLITIKARI ERAGITEN DIO?</p>	<p>Herritarren interesei zuzendutako legegintzari, araugintzari eta erregelamendugintzari.</p>
<p>ZER SEKTORERI?</p>	<p>Legegintzako, araugintzako eta erregelamendugintzako herri-ekimena aurreikusita duen edozein sektoreri.</p>
<p>ZER OGP BALIOREKIN EGITEN DU BAT?</p>	<p>Araugintzan garden izateko eskakizuna. Erakundeetako eragileak gehiago zuzendu behar dira herritarrek dituzten asmo eta premietara, eraginkorragoak izanik tramiteak egiteko orduan.</p> <p>Herritarrek gehiago parte hartzea gai publikoetan, konbentziturik horrek lagundu egingo duela zerbitzu publikoak hobetzen, baliabide publikoak arrazionalizatzen, berrikuntza publikoa sustatzen eta, azken finean, gizakien aberastasuna, ongizatea eta duintasuna sustatzen gizarte gero eta konplexuago batean.</p> <p>Herritarrak ahalduntzea eta mobilizatzea, teknologia berriek eskaintzen duten indarra baliatuz; hala, berdintasunez eta diskriminaziorik gabe lagunduko da politika publikoak formulatzen eta erabakiak hartzen.</p> <p>Gardentasuna, lagunduko duena jarduera publiko eta pribatu integratuagoak lortzen, ongizate komunari begira.</p> <p>Gehiago sartzea teknologia berrietara, espiritu irekiaz eta erantzukizunaz, eta lineako gune irisgarri eta seguruak garatuz.</p> <p>Hau da, plataformak sortzeko zerbitzuak eratzeko, parte hartzeko eta herritarrak lankidetzan aritzeko, sistemak eratzeko informazioa eta ideia, proposamen eta lehentasun publikoak partekatzeko.</p> <p>Gizarte zibilaren konektibitatea piztea, balore publiko partekatua sortzeko.</p>
<p>ZEREKIN?</p>	

<p>ZER BALIABIDE BEHAR DUGU?</p>	<p>180.000 euroko aurrekontua aurreikusten da KONPROMISO-TALEA, HERRIITARREN ETA ERAKUNDEEN IKUSPEGIA DUTEN ERAGILE ADITUEK OSATUA</p>
<p>ZER DAUKAGU?</p>	<p>Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako aurrekontua. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Eusko Jaurlaritza Hasierako aurrekontua: 180.000 euro</p> <p>KONPROMISO-TALDEA (AURREKO ATALEAN INPLIKATU MODURA AZALTZEN DIREN ERAGILEAK EUSKO JAURLARITZAKO EJE INFORMATIKA ELKARTEKO GIZA BALIABIDEAK, BALIABIDE TEKNIKO ETA TEKNOLOGIKOAK. KONTRATAZIO PUBLIKOA, HALA TRESNA GARATZEKO, NOLA HURA ZABALDU ETA EZARTZEKO</p>

EKINTZAK					
MUGARRIA	ZER LORTUKO DA? <i>Produktua edo zerbitzua</i>	HASIERA- DATA	AMAIERA- DATA	ERAKUNDE ARDURADUNA	HARREMANETARAKO PERTSONA
1	Azkenean, konpromiso-taldea eratzea, eta talde horretan parte hartzea autonomia-, foru- eta toki-administrazioek eta Eusko Legebiltzarrak, baita herritarrek ere, antolatuta egon ala ez.	2021eko iraila	2021eko urria	Eusko Jaurlaritzaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakoko Zuzendaritza	Javier Bikandi Irazabal. Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakoko zuzendaria.
2	Aztertzea zein diren legegintza-/araugintza-/erregelamendugintza-ekimenen araudi guztiak eta zer joera dagoen nazioartean herri-ekimenen inguruan.	2021eko urria	2021eko abendua	Eusko Jaurlaritzaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakoko Zuzendaritza	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino. Berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna.
3	Zehaztea noraino iritsiko den azkenean. (Herritarrek parte hartzeko hurbileko ekimenei buruzko erabakia, hala nola eskatzeko eskubidea eta tokiko, foru-aldundiko edo autonomia-erkidegoko araudian jasotako beste batzuk). Esperientzia digitala zein pertsona-taldetan oinarrituko den eta zein ez identifikatzea, zerbitzuen diseinuaren ikuspegitik.	2022ko urtarrila	2022ko urtarrila	Eusko Jaurlaritzaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakoko Zuzendaritza	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino. Berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna.
4	Diseinuko eta garapenerako enpresa kontratatzea.	2021eko abendua	2022ko otsaila	EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea	Alex Lara Garatxana. Proiektu-arduraduna
5	Garatu beharreko elementuak identifikatzea, herritarren profil/kolektiboen esperientzia digitalaren ikuspegitik.	2022ko otsaila	2020ko apirila	EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea	Alex Lara Garatxana. Proiektu-arduraduna
6	Sistemaren eta esperientziaren probak.	2022ko maiatza	2023ko maiatza	EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea	Alex Lara Garatxana. Proiektu-arduraduna
7	Sistema probatzea	2023ko ekaina	2023 uztaila	EJIE - Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea	Alex Lara Garatxana. Proiektu-arduraduna
8	Proiektu pilotua: esperientzia eta plataformaren berri ematea, proposamenak biltzea, pilotua hautatzea, ekimena elkarrekin kudeatzea	2023ko iraila	2024ko ekaina	Eusko Jaurlaritzaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalakoko Zuzendaritza	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino. Berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna.

9	Aldaketaren berri ematea eta aldaketa bera kudeatzea	2024ko iraila	2024ko azaroa	Eusko Jaurlaritza Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino. Berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna.
10	Ebaluazio partaidetua	2024ko azaroa	2024ko abendua	Eusko Jaurlaritza Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino. Berrikuntza publikoko proiektuen arduraduna.

ZEHARKAKO ELEMENTUAK

2030 AGENDAREKIN
BATERATUTA DAGO? ZER
GJH-RI LAGUNTZEN DIO?
NOLA?

16. helburua. Bakea, justizia eta erakunde sendoak

Gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarria lortzeko; denei erraztea justiziako sarbidea, eta, maila guztietan, erakunde eraginkor eta inklusiboak sortzea, kontuak ematen dituztenak.

- **16.6 ERAKUNDE ERAGINKORRAK ETA GARDENAK**

Maila guztietan, erakunde eraginkor eta gardenak sortzea, kontuak ematen dituztenak.

- **16.7 HERRITARREK PARTE HARTZEA**

Maila guztietan bermatzea erabaki inklusiboak hartuko direla, partaidetzan oinarrituak eta premiei erantzuteko ordezkariak izaten dutenak.

- **16.10 INFORMAZIOARRAKO SARBIDEA ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK**

Bermatzea babestuko direla informazioarako irispide publikoa eta oinarrizko askatasunak, lege nazionalen eta nazioarteko itunen arabera.

- **16.B LEGEAK ETA POLITIKAK (GIZA ESKUBIDEAK)**

Garapen jasangarriaren aldeko lege eta politika ez-diskriminatzaileak sustatu eta aplikatzea.

<p>NOLA JORRATUKO DA GENERO-IKUSPEGIA? <i>Diseinu-, hedapen- eta ebaluazio-fasea</i></p>	<p>Diseinuaren bidez, genero-ikuspegia sartuko da (irismena); horretarako, , gaiari buruzko ikuspegia duten pertsonak sartuko dira konpromiso-taldean.</p> <p>Tresnan, funtzionalitateak garatuko dira, genero-diskriminazioei buruzko hausnarketa bultzatzeko eta ekintza positiboak txertatzeko araugintzan, desberdintasunak zuzenduko dituztenak; hala, ikusgarriak izan ahal izango dira, eta erraz eskuratzeko modukoak.</p> <p>Tresna hedatzean, genero-ikuspegia txertatzen duten edo generoagatiko diskriminazioak zuzentzen edo ekintza positiboak sustatzen zuzenean laguntzen duten lege-/araudi-/erregelamendu-ekimenekin parte hartu nahi duten kolektiboen sarbidea zainduz.</p> <p>Ebaluazio parte-hartzailean genero-ikuspegia txertatuz.</p>
--	--